

KONTROL MOZIOA

HIRIKO GUNE ESTALIAK DIRELA ETA

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkeztu du Udaltzaren azter dadin. Mozioa 2019ko urtarrilaren 14an Pertsonen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Azken urteetan ugartu egin dira gune estaliak auzoetan jartzeko herritarren eskaerak. Izan ere, ez dugu ahaztu behar urteko 150 egunetan euria egiten duela gure hirian. Eskaera horiei erantzuten ahalegintzeko, hainbat udal ekimen proposatu ditugu, hiri osorako berariazko plan bat egiteko beharrari aurre egiteko.

Ildo horretatik, 2015eko uztailearen 24an, lantalde bat sortzea proposatu genuen, hiri osoko gune estalien beharrei erantzuteko proposamenak aztertu eta egin zitzaizkien. Udal Gobernuak osatzen duten taldeei, ordea, ez zitzaizkien egoki iruditu lantalde horren sorrera.

Ondoren, 2015eko irailean, Gune Estaliak Aztertze eta Proposatze Batzorde Ez-iraunkorra sortzeko proposamena aurkeztu genuen. Gure iritziz, batzorde horrek udal talde guztietako ordezkari bana izan behar zuen, eta, noski, auzo elkarte guztiekiko lankidetzeta eta parte hartze aktibora irekita egotea ere beharrezkoa iruditzen zitzaigun. Herritarrek parte hartzeko foro ireki hori sortzeko EH Bilduk egindako proposamenari Udal Gobernuak taldeek erantzun zioten gai hori aztertze batzorde tekniko bat sortzeko zutela (udal talde guztiak ez zeuden ordezkaturik bertan, eta auzo elkarteek ez zuten, gonbidaturik, joaterik).

Argi dago erabaki horrek batzorde tekniko egiten ari den lanari buruzko informazioaren eskuragarritasuna murrizten duela, eta, aurreikus daitekeenez, eskakizun maila txikiagoa ere badu batzorde horrek.

Hori ikusita, 2016ko uztailean kontrol mozio bat aurkeztu genuen Udal Gobernuari hurrengoa eskatuz:

- 1. Donostiako Udaltzaren hertsatze eskatzen dio gobernu taldeari doaneko espazio estaliak jartzeko bere proposamenak aurkezteko bizilagunen elkarrekin eta udal talde politikoei, bai eta zerikusia duten eragileekin proposamen horiek adosten saiatzeko ere.*
- 2. Donostiako Udaltzaren hertsatze eskatzen dio gobernu taldeari ekintza-kronograma bat sortzeko, auzo guztietan doako espazio estali bat, gutxienez, pixkanaka jarri joateko, eta, hortaz, aurrekontu-zirriborroetan kontuan hartzeko asmo hori.*
- 3. Halaber, hertsatze eskatzen zaio gobernu taldeari, auzoak aisialdirako espazio estali bat, gutxienez, ez duen bitartean, akordioetara iristen saiatzeko, espazio publikoak erabili ahal izan daitezen, hala nola, ikastetxe publikoetakoak –haur, lehen nahiz bigarren hezkuntzako ikastetxeetakoak–, bai eta bestelakoak ere.*

Udal Gobernuako taldeek kontrol mozioaren aurka bozkatu zuten eta, bederatzi hilabete igaro ondoren, batzorde teknikoaren berririk gabe jarraitzen genuen. Gauzak horrela, 2017ko apirilean beste kontrol mozio bat aurkeztu genuen honako hau eskatuz:

1. *Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari egin dezala aurtan aisialdirako doako espazio estalien plan bat, eta aurkeztu, eztabaidatu eta, hala badagokio, adostu dezala auzo elkarteekin eta udal talde politikoeekin.*
2. *Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio gobernu taldeari gero plangintza proposamen bat aurkez dezala, horiek pixkanaka jorratzeko edota gauzatzeko.*

Bigarren aldiz, Udal Gobernuako taldeek gune estalien plan bat egitearen aurkako bozka eman zuten eta orduz geroztik, ez da bide horretan pausorik eman.

Aldi berean, gure harridurarako, 2017ko abenduko batzordeetan PPK aurkeztutako ekimen baten harira, Hirigintzako delegatuak adierazi zuen Udal Gobernuak ez zuela gune estalien inguruko planik edo kronogramarik egin eta ez zutela inongo ekintza berririk aurreikusten legegintzaldi honetan.

Aurtengo otsaileko batzordeetan haxe galdetu genion delegatuari:

1. *Zer dela eta gune estaliak aztertzeko batzordeak ez du lanketa edo plan zehatzik egin hiru urte hauetan?*
2. *Zertarako sortu du Udal Gobernuak batzorde tekniko hau, gero ez badu erabiltzen?*
3. *Zergatik ez da egin hiriko gune estalien inguruko plangintza eta azterketarik?*
4. *Zenbatero biltzen ari da batzorde tekniko hau? Zeintzuk dira haren funtzioak?*

Delegatuak ez zuen inongo xehetasunik eman, eta ez zuen inongo konpromisorik hartu plangintza bat egiteari begira; are gehiago, delegatuak ez zuen uste plangintzarik egin behar zenik.

Hori zela eta, honako kontrol mozio hau aurkeztu genuen otsaileko udalbatzarrean:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari gune estalien batzorde teknikoak legegintzaldi honetan egindako lanaren eta ondorioen inguruko txosten bat aurkez diezaiela Udalbatza osatzen duten talde guztiei hiru hilabeteko epean.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari legegintzaldia amaitu baino lehen hiriko gune estalien inguruko plangintza proposamen bat aurkez dezala.

Oraingoan, mozioa aho-batez onartu zen, baina hamar hilabete pasatu diren honetan ez dugu txostenaren edo plangintzaren inguruko berririk izan. Hilabete honetako batzordeetan Hirigintzako delegatuak adierazi digu aipatutako bi lanak ez direla egin beste eginkizun batzuk aurrera ateratzen ibili direlako, esate baterako: Harria parkeko eta Martin Santos plaza/Plaza Haundiko gune estaliak eta Zuberoa plaza estaltzeko plan berezia. Berri handirik ez dago, ordea, egitasmo hauen inguruan, nahiz eta aspaldikoak diren.

Horregatik, ezin dugu ulertu Gune Estaliak Aztertze eta Proposatze Batzorde Ez-iraunkorraren erabilera ez sustatu izana Udal Gobernuaren aldetik eta legegintzaldia bukatzean dagoenean oraindik ere plangintzarik ez izatea.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

KONTROL MOZIOA:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, gune estaliak direla-eta, 2018ko otsaileko udalbatzarrean onartutako kontrol mozioa bete dezala¹.

Donostian, 2019ko urtarrilaren 16an

Olaia Duarte López

EH Bildu udal taldeko zinegotzia

¹ 1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari gune estalien batzorde teknikoak legegintzaldi honetan egindako lanaren eta ondorioen inguruko txosten bat aurkez diezaiela Udalbatza osatzen duten talde guztiei hiru hilabeteko epean.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari legegintzaldia amaitu baino lehen hiriko gune estalien inguruko plangintza proposamen bat aurkez dezala.